

PROGRAMAZIO DIDAKTIKOAREN LABURPEN DOKUMENTUA

Irakasgaia	Biologia-Geologia		
Irakaslea	Martin Urrutia	Ikasturtea	2023/24
Maila	1. DBH	Taldea	A; B; C; D

Irakasgaiaren ezaugarriak

X	Denentzako irakasgaia	Asteko saio kopurua	3
	Ibilbideko irakasgaia	Ikasturteko saio kopurua	102
	Aukerako irakasgaia	Taldeko ikasle kopurua	A:16 B:16 C:18 D:16

1. HELBURU OROKORRAK

Indarrean dagoen araudian curriculumerako ezarritakoak eta institutuko idazkaritzan hezkuntza komunitatearen eskura dagoen urteko programazioan zehazturikoak.

- DBHko curriculumak, [71/2022 FORU DEKRETUA](#).

2. OINARRIZKO JAKINTZAK ETA DENBORAREN BANAKETA

1. ebaluazioa

- 1. Unitatea: Lur planeta; Geosfera. Harriak eta mineralak. 10 saio
- 2. Unitatea: Lurraren atmosfera. Eguraldia eta klima 10 saio
- 3. Unitatea: Lurraren hidrosfera. 10 saio

2. ebaluazioa

- 4. Unitatea: Izaki Bizidunak; Biosfera. Zelula eta izaki bizidunen ezaugarriak. 10 saio
- 5. Unitatea: Izaki bizidun zelulabakarrak; Moneroak, protistoak eta onddoak. 8 saio
- 6. Unitatea: Landareen erreinua. Beraien bizi funtzioak. 12 saio

3. ebaluazioa

- 7. Unitatea: Animalien erreinua. Animalia ornodunak. Beraien bizi funtzioak. 12 saio
- 8. Unitatea: Animalia ornogabeak. Beraien bizi funtzioak. 7 saio
- 9. Unitatea: Paisaia eta Ekologia. Ekosistemen egitura. 12 saio

3. EBALUAZIOA ETA BERRESKURATZEA

Ebaluazio irizpideak

Indarrean dagoen araudian curriculumerako ezarritakoak eta institutuko idazkaritzan hezkuntza komunitatearen eskura dagoen urteko programazioan zehazturikoak.

- DBHko curriculumak, [71/2022 FORU DEKRETUA](#).
- Ebaluazioari dagokionez indarrean dagoen araudia argitaratu bezain pronto eguneratuko ditugu programazioak.

Ebaluazio prozedura

Ikasgaiaren ebaluazioa burutzeko orduan honako prozedurak edo ebaluazio tresnak erabiliko dira:

- **Azterketak.** Gai bakoitza bukatzean honen inguruko azterketa bat egingen da. Azterketa galdera tipologia anitzekoa izanen da eta astebete lehenago gutxienez ezarriko da egutegian.
- **Eguneroko lana eta klaseko jarrera.** Egunekotasunean ikasleak erakusten duen lana, etxeko lanen burutzea eta agerturiko jarrera ere kontuan hartuko da. Klaseko lanean, talde lan kooperatiboetan ekoiztutako lan telematikoak edo paperean agertutakoak. Lan kooperatiboan aurkezpen prozedurak ere kontuan hartuko dira.
- **Ikasgaiko kuadernoa, lan bereziak edo laborategiko txostenak.** Ikasturtean zehar kuadernoa eskatuko da bere osotasuna, txukuntasuna eta ordena baloratzeko. Lan bereziak eta laborategian egindakoen inguruko lanak eskatuko dira.

Ikasgaia gainditu ahal izateko honako baldintza edo irizpide hauek eskatuko dira:

- Hiruhilabeteko bakoitzean eginen diren azterketen noten batazbertzekoak gutxienez 4 batekoa izan beharko du. Ez da nota minimorik eskatuko azterketa bakoitzaren inguruan.
- Ikasgaiko Lan kuadernoak entregatu beharko dira eta hauek gaindituak behar dute egon ikasgaia gainditzeko.
- Lan bereziak eta txostenak entregatu beharrik dira ikasgaia gainditzeko.

Kalifikazio irizpideak

Ikasturtean zehar 3 ebaluaketa tarte izanen dira. Ebaluaketa bakoitzaren ondoren nota bat jarriko da irizpide hauen arabera:

	LAN OHITURAK eta GELAKO DINAMIKA ERRESPETATZEA KLASEKO LANA	ESPARRU AKADEMIKOA		GUZTIRA
		AZTERKETAK (1)	ETXEKO LANAK, KUADERNOA ETA BESTELAKO LANEN KALITATEA	
DBH 1. Maila (2)(3)	% 30 3 puntu	%40 4 puntu	% 30 3 puntu	10 puntu

- (1) Curriculumaren inguruan egokitzen diren erranguratsua behar duten ikasleen kasuan, %30 balioko du azterketaren atalak. %10 hori Etxeko lanen eta kuadernoaren atalera pasako da.
- (2) Azterketa eta lan bereziei dagokienez, **Ortografia eta Berariazko Hiztegia** eragindako akatsek notan eragina izanen dute. Azterketen kasuan, gehienezko puntuazioaren %5a suposatuko du eta Lanen kasuan berriz, gehienezko puntuazioaren %10a. Idatzia eta Irakurmenaren nahasmena arazoa duen ikasleren kasuan, malgutasunez jokatu da.
- (3) Aniztasunaren trataera aurreikusten da: TDAH, Dislexia, TEA.... Berariazko beharrik dituzten ikasleen kasuan, egokitzen

metodologikoak aurreikusten dira. Aplikaturiko egokitzapen metodologikoak EDUCAko norberaren nota buletinean zehaztuko dira.

- (4) Ebaluazio bat kalifikatu ahal izateko, ikasleak gutxienez, ebaluaketa horretan azterketa bat egin beharko du izan eta gainera, kalifikazio irizpide esparru guztien artean (azterketak, lanak, kuadernoak, jarrera) %70a bederen burutua beharko du. Baldintza hauek ez baditu betetzen, ikasgaia kalifikatu gabe utziko zaio. Ikasleak egiteke dituen azterketak eta lanak burutzen dituenean, ebaluaketako kalifikazioa jarriko zaio edo %100ean egiten duenean ebaluaketako nota osatuko zaio (Kasu honetan inoiz ez modu negatiboan).

Ebaluazio tarteak hauek izanen dira:

- 1. Ebaluazioa: azaroak 28,29 eta 30
- 2. Ebaluazioa: martxoak 12,13 eta 14
- 3. Ebaluazioa: eta Azken ebaluazioa: ekainak 4,5 eta 6
- Ohiko deialdiko Ebaluazioa: ekainak 17,18 eta 19 (azterketak) eta 21ean ebaluazio saioa.
- Ikasturtearen amaierako egunak (ekainaren 7tik ekainaren 14ra arte) klase egun arruntak izanen dira eta, beraz, eragina izango dute ikasturte bukaerako kalifikazioan, betiere modu positiboan.

Berreskuratze sistema

Berreskurapen sistemak 2 tarte aurreikusten ditu:

- Irailetik ekainaren 6a arte: Tarte honetan ebaluaketa bakoitzean GAINDITU EZ DIREN GAIK berreskuratu beharrak dira. 3 aukera hauek:
 1. Aukera: Ebaluazioa bukatu aitzinetik edo akitu ondoren, hurrengo ebaluaketaren hasieran.
 2. Aukera: Hurrengo ebaluazioan edo 3. Ebaluaziora ailegatu baino lehen.
 3. Aukera: ekainaren 4,5 edo 6an egingen diren azterketetan.

Ebaluazioa suspenditzearen arrazoiak lan kuadernoak bada edo antzeko lan kalifikazio negatiboa, Kuaderno edo lan horiek modu egokian entregatu beharko dira.

- Ekainaren 10etik aitzin: Errekuperazio materiala banatuko zaio ikasleari eta aste horretan gelan zailtasun inguruko laguntza eskainiko zaio. Errekuperazioa EBALUAZIOEN INGURUKOA izanen da. Ebaluazio bakarra gelditu bada gainditzeke, ebaluazio hori berreskuratu beharko du. Bi ebaluazio edo ikasturte

osoa utzi badu gaintitu gabe, IKASTURTE OSOKO GAITEGIA berreskuratu beharko du. Azterketak ekainak 17,18 edo 19an izanen dira.

4. PROMOZIO IRIZPIDEAK

Indarrean dagoen arautegian ezartzen diren irizpideak aplikatuko dira, eta promozio erabakia irakasle taldeak ebaluazio bilkuran egiten den deliberazioan oinarrituko da.

- DBHko curriculuma, [71/2022 FORU DEKRETUA](#)..
- Ebaluazioari dagokionez indarrean dagoen araudia argitaratu bezain pronto eguneratuko ditugu programazioak.

5. MATERIALA

- Testuliburua: Giltza-Edebe Biologia-Geologia 1. DBH Beste era batera bilduma. Liburu hau ez da ikasturte hasieran ailegatu eta bitartean Santillana-Zubia Biologia-Geologia 1. DBH erabiliko dugu.
- Chromebook dispositiboa (Hezkuntza departamentuak ikasle bakoitzari banatuko diona)
- Kalkulagailua.